

Irizar FIAA azokaren XII. edizioan

Madril, 2014ko urriaren 28a

Beste urte batez Autobus eta Autokarraren Nazioarteko Azokan izango gara, 2.000 metro koadro baino gehiagoko erakustoki batean, bezero, prentsa, laguntzaile eta bertaratutakoekin 125 urteko historia ospatzeko agertoki bihurtuta.

Hitzorduan, halaber, i2e Irizar hiri autobus berria aurkeztuko da, zero igorpeneko autobus %100 elektriko berria, oso-osorik Irizar Taldearen teknologiarekin egin dena.

Standean Irizar familia osatzen duten autokarren gama osoa ikusi ahal izango da, luzera eta bertsio desberdinekin, hainbat txasis markaren gainean eginak.

125 urteko historia

Sendotasun eta hazkunde handiko momentu batean, Irizarrek bere historiaren lehendabiziko 125 urteak ospatzen ditu gaur estatu mailan.

Irizar 1889an sortu zen, eta fundatzaileak, Jose Antonio Irizar gipuzkoar ekintzaileak, erabaki zuen gurdietarako burdineria fabrikatetik bidaiariak garraiatzeko ibilgailuen fabrikaziora bilakatzea. XIX. mendearen bukaeran, famili enpresa hark, zigilu perfektionista ezarriz eta tentu handiz, gurdi zein diligentzia dotoreak fabrikatzeko lanari ekin zion, eta ia hiru hamarkadatan jardun zuen lan horretan.

1927an trakzio mekanikoa zuen lehen Irizar autokarra fabrikatu zutenek inoiz ez zuten susmatuko bere enpresa txikia munduko erreferente bihurtuko zela bidaiariak errepidez garraiatzeko autokarren fabrikazioan. Bereizgarri zuten izaera berritzailearekin egin zioten aurre erronka hari, eta ondorengo belaunaldiei transmititu zieten, Irizar markaren nortasun ikur bilakatu arte.

1948an metala gehitu zitzaion autokarrei eta eskuz egindako merkatuko lehen ibilgailu erdimetalikoa merkaturatu zuten. Guztiz metalikoak ziren autobusak bost urte geroago iritsi ziren.

1995ean nazioartekotzeko prozesua hasi zen, karrozerien teknologiaren transferentziarako estrategiaren ondorioz. Eta hori egiteko produkzio plantak ezarri



ziren Txina, Maroko, Brasil, Mexiko, India eta Hegoafrikan. Gainera, Hispacold eta Masats Taldeari gehitu zitzaizkion.

Hazkunde ekonomiko handiko 14 urte igaro ziren eta, Irizarrek, halaber, hazkunde handia izan zuen Ormaiztegin ere, urtean 1.500 karrozeria fabrikatzeraino.

2009. urtean, krisialdi betean, Irizar indartuko zuen eta errekor historiko berriak lortzeraino handiaraziko zuen iraultza estrategikoa gauzatu zen.

Markaren aldeko apustua egin zen, autokar fabrikatzaile bihurtu zen eta indar handiz dibertsifikazio industrial eta teknologiaren alde egin zen.

Aldi berean, produktuen kalitateari eta fidagarritasunari bultzada garrantzitsua eman zitzaion.

Mundu osoko bezeroengana ere hurbildu zen, produktu eta zerbitzu guztiak haien beharretara egokituz eta pertsonalizatuz, eta hazkunde ikaragarriak gertatu ziren, batez ere Mexikon eta Brasilen.

Dibertsifikazio industrialerako estrategia Taldea indartzeko funtsezko faktore moduan definitu zen eta, ondorioz, 2009 eta 2013 artean, Jema Energy, Datik eta Alconza Taldeari gehitu zitzaizkion, potentziako elektronikan, garraioa kudeatzeko ITS soluzioetan eta makineria elektriko birakarian dihardutenak, hurrenez hurren.

2011n Irizar markako autokar integralen gama atera zen merkatura, eta karrozeriak egitetik autokarren fabrikatzaile izatera igaro ziren.

Halaber, 2011n hirietarako mugikortasun iraunkorraren proiektuari ekin zitzaion, zero igorpeneko %100 autobus elektrikoaren garapenarekin.

2012an Creatio sortu zen, Irizar Taldearen Ikerketa eta Garapen Zentroa, Irizar Taldearen ikerketa aplikatuaren eta garapen teknologikoaren ahalmenak bultzatzeko, bai firmaren produktu osatuetarako bai karrozerien osagai nagusietarako, eta, aldi berean, Trainee Program bat abiarazi zen, oso pertsona kualifikatuak erakartzeko, beharren arabera zentroan integratzen joango direnak.

2014an Irizar Taldearen lehen autobus elektrikoa aurkeztu zen Donostia hirian, oso-osorik Taldean garatutako teknologiaz egina: Irizar i2e.

Inoiz baino sendo eta gazteago, Irizar gaur egun Talde indartsua da, geografikoki dibertsifikatua eta industrialki etengabeko hazkundera duena; markaren, teknologiaren eta iraunkortasunaren alde irmo egiten duen Taldea, eta produktu propioen alde, bai autokar eta autobus elektrikoetan, bai presentzia duen sektoreetako gainerako produktuetan.



Gaur egun Irizar Taldea hamaika konpainiak osatzen dute, munduan zehar autokarrak egiteko bost planta ditu, dibertsifikazio industrialaren ondorioz jasotako beste bost planta, eta Ikerketa Zentro bat.

2.500 pertsonak baino gehiagok osatzen dute, horietatik 750 matrizean, eta 500 milioi euro baino gehiago fakturatzen du.

Hazten jarraitzen dugu

Sendotasun, animo eta motibazio handiko unean gaude, Taldean inoiz egin diren proiekturik anbiziotsuenetan lanean, eta horien emaitzak datozen urteetan ikusi ahal izango dira.

Instalazio berriak

Ospakizuna aprobetxatuz, aurtengo uztailean bereziki bezeroaren eraginez eta bezeroarentzat sortu diren instalazio berri eta modernoen inaugurazioa egin dugu.

1.200 m²-ko beste planta berri bat eraiki da, autokarrak definitzeko, bezeroak hartzeko eta markaren bizipena garatzeko espazio moderno eta berritzaile bat duena; halaber, Creatio I+Gko zentroa ere kokatu da, eta gune korporatibo moderno bat.

Showroomean tapizeriako eta estalkietako aukerak erakusten dira, bertsio fisikoan eta birtualean, bezero bakoitzaren autokarra modu eskusiboan diseinatzeke eta pertsonalizatzeko.

Eraikin eta harreragune berrien asmoa da bisitaria jaso eta Irizarren mundura eramatea: marka sendoa, etengabe hazten ari dena, etorkizunari eta teknologiarri garrantzi berezia ematen diena.

Gainera, eraikin berri eta moderno bat eraiki da bezeroei autokarrak entregatzeko, urtebetetzearekin bat eginda behin-behineko Museo historiko bihurtu dena, Irizarren autokarrak enblematikoenak jasotzen dituen.

Irizar Taldearen hiri autobus %100 elektrikoa errealitate da dagoeneko



Irizarrek bete egin du autobus %100 elektrikoaren hiru unitateak zirkulazioan jartzeko erronka handia, bi Bartzelona hirian eta bat, lehenengoa, Donostian.

Gaur egun hirietarako i2e hiri autobus elektriko berria aurkeztu da ofizialki estatu mailan.

Aurtengo uztailean Irizarrek lehen unitatea entregatu zuen Donostia hirian, bere lehenengo hiri autobus %100 elektrikoa bezeroei aurkeztu eta markaren estrategia garatzeko beste urrats bat eginez.

Abuztuan eta urrian hurrengo biak entregatu ziren Bartzelona hirian eta, horrenbestez, Europako ZeEUS proiektuaren barruan autokarrak entregatu dituen lehen enpresa europarra da.

Iraunkortasunari buruzko berrikuntzaren eta Europako merkatuaren abangoardian duen kokapenaren emaitza Irizar lehen ibilgailu elektriko hauek dira, etorkizuneko hiri inguruetara zuzendua.

Irizar i2e errealitatea da dagoeneko, eta hiri mugikortasunera bideratutako iraunkortasunaren eta ekoefizientziaren erreferentea, hiriko garraioaren gaur egungo zein etorkizuneko beharrak asetzeko.

Teknologia propioa – Europar Know Howa

Irizar i2e teknologia propioarekin garatutako lehen hiri autobus integrala da, enpresak markatutako lerro estrategikoarekin bat eginda, hau da, bezeroengana hurbiltzeko eta Irizar markako autokar integralekin marka indartzeko estrategiarekin bat eginda.

Produktua Taldeko enpresek eta Euskal Teknologia Sareko zentro teknologikoek lankidetzan egindako lanaren emaitza da.

Irizarrez gain, Taldeko gainerako enpresek indarrak batu dituzte Irizar i2e modeloa bultzatzeko: Hispacold, klimatizazio ekipamenduen fabrikatzailea; Jema, elektronikan espezializatua; Datik, garraiorako soluzio adimendunak garatzen dituen enpresa teknologikoa; Masats, irisgarritasun sistemen fabrikatzailea, eta Creatio, Taldearen I+G zentroa.

Produktuari iraungarritasunari buruz egindako saiakuntzen ondoren, Irizar i2e europar teknologiako autobus moduan aurkezten da, fidagarria eta gure hirietan ibiltzeko prestatua, zero igorpenen plusarekin.

Gainera, bere iraungarritasunak eta errentagarritasunak kostu operazionala hobetzen dute.



Iraunkortasunari buruzko berrikuntza

i2e Taldeak mugikortasun iraunkorraren alde egiten duen apustuaren fruitua da, eta hiri mugikortasuneko liderra izateko asmoarekin iritsi da, hirietan iraunkortasunaren eta ingurumenaren hobekuntzaren alde laguntzeko konpromiso irmoarekin.

Europar Batasuneko biztanleen %60 hirietan bizi delarik, kutsadura kentzea da hiriguneei aurre egin beharreko erronka handietakoa. Errekuntzako ibilgailuen zirkulazioa CO2 isurketen %40ren eta gainerako kutsatzaileen %70en erantzulea da. Autobus elektriko bakoitzeko urteko CO2 igorpenak 88 tonatan murrizten dira, eta 33.000 litro erregai aurrezten dira.

Kutsadura akustikoa gero eta handiagoa da: egun, inoiz baino gehiago, garraiobide eraginkorrak, ekologikoak eta isilak behar ditugu; ingurunearekin atsegin eta errespetuz jokatu dutenak, eta hirietako pertsonen bizi kalitatea hobetzen lagunduko dutenak.

Taldearen iritziz, hiriak ez kutsatzeko erabakiak ezin du atzera bueltarik izan eta, hori dela eta, orain dela lau urte erabaki zen hiri autobus eremuan zuzenean zero igorpeneko autobus elektrikoekin sartzea. Horregatik, eta kutsadura akustikorik sortzen ez duelako, seguru gaude Irizar i2e garraio ezin egokiagoa dela hirientzat eta bertako biztanleentzat.

Beste ezaugarrietako bat osagaiak birziklatzeko aukera da. Ecodesignen printzipioak barneratuz garatu da, autobusaren diseinuan ingurumen irizpideak ezarri. Sartu diren bateriak ere %99 birziklagarriak dira.

Autonomia handia

Irizar i2e 200 eta 250 km arteko autonomia eskaintzeko diseinatu da, egunaren amaieran karga bakar bat eginez. Kargatzen bost ordu besterik ez emanda, gidaritza 14-16 orduz bermatuta dago, hiri barruko zein hiriarteko zirkulazio trinkoa denean, 17 km/h-ko batez besteko abiadurarekin.

Donostia eta Bartzelonako lehen autobusekin erregistratutako datuek autonomia maila horiek egiaztatzen dituzte.

Kontsumo energetikoa optimizatzeko helburuarekin, Irizarrek berak sortutako teknologia aitzindariak barneratzen ditu. EcoAssist gidariari denbora errealean laguntzeko sistema bat da eta, aldi berean, gidaritza optimizatzen laguntzen du, energiaren kontsumoa murrizten eta autonomia handitzen.



Irizar segurtasuna eta fidagarritasuna

Irizar i2e segurtasun aktiboaren zein pasiboaren eskakizunik zorrotzenak betetzeko diseinatu da. Iraulketaren kontrako R.66 segurtasun araudia betetzen duen merkaturako lehen autobus elektrikoa da. Bere egitura sendoaren zurruntasuna eta sendotasuna alboko zein aurrez aurreko txoke egoerak bermearekin jasateko pentsatuta dago.

Autobusa Irizar markako gainerako autokarrak bezain sendoa eta fidagarria da. Neke azeleratuko eta fidagarritasuneko saiakuntza gogorak egin zaizkio, automoziora aplikatutako ikerketa instituturik ospetsuenetako batean, eta emaitzak bikainak izan dira. Diseinuan, materialetan, osagaietan eta produkzio prozesuetan teknologiarik aurreratuenak sartzeaz gain, autobusak kalitate goreneko akaberak dauzka.

Errentagarritasun ezin hobea

Irizar i2e-k errentagarritasunik onena eskaintzen du, bere kontsumo elektrikoagatik, teknologia energetikorik berritzaileenak barneratu baititu. 230 kW-eko potentzia nominalarekin, ibilgailuan ontziratutako energia 376 kWh da, eta horrek 200/250 km-ko autonomia ematen dio, gidaritzak zikloaren eta baldintza klimatologikoen arabera.

Energia biltegitratzeko sistema Jema Energyk garatu du, eta bateriaren eta superkondentsadoreen arteko erlazioa kudeatzen du, bi osagaien kargaren egoera tarte ezin hobean mantentzeko eta, ondorioz, osagaien bizitza zikloa luzatzeko eta kostu operazionala hobetzeko.

Irizar i2e bateriek hamar urte daramate elikadura sistema moduan lan egiten, eta %99 birzikla daitezke. Teknologia frogatua eta fidagarria da.

Autobusaren diseinuan aerodinamikaren kontzeptua sartzeaz gain, pisuen banaketa ere kontuan hartu da, baita osagaien irisgarritasuna ere, mantentze lanak errazteko.

Bateriaren kargagailuak –Jemak egina da– combo II motako mahuka du, eta bateria guztiak bost orduan kargatzea ahalbidetzen du.

Dagoeneko egin dizkigute lehen eskariak, eta horrelako autobus erabilera bultzatu nahi duten Europako hainbat hirirekin harremanetan gaude, eta prest gaude horietako bakoitzaren behar pertsonalizatuei erantzuteko.



Mugikortasun iraunkorraren merkatuetan sartzea Taldean iragana eta geroa markatuko dituen mugarri handia da.